



HARTZEA EMATEA DELAKO

Durangoko Azokaren 59. edizioko leloa eta irudia aurkeztu dituzte; Udatxo eta Balu artistek egin dute irudia, eta 'Hartzea ematea DA' da leloa / 17

Udatxo eta Balu.

TXELU ANGOITIA / GEREDIAGA ELKARTEA

Mallabiko Urriko Jaietan Elegante Eguna berreskuratuko dute / 6



"Ez ginen kontziente 40 egun egingo genituela greban"

Matias Oregik eskualdeko grebarik entzutetsuenetariko batean parte hartu zuen orain 50 urte / 2-3



Matias Oregi, Inder enpresaren aurrean.

Zornotzako Nazioarteko Krosak goi mailako krosleriak batuko ditu domekan / 21

Esne Beltza eta Belakoren kontzertuak, eta Mozorro Eguna sanfaustoetan / 4



Matias Oregi, Inder enpresa izandakoaren ondoan.

"Inderko greba mugarri izan zen eskualdeko langileriarentzat"

MATIAS OREGI ARREGI INDER ENPRESAKO GREBALARI ETA LANGILE OHIA
Aurten 50 urte bete dira Berrizko Inder enpresan Durangaldeko langile greba entzutetsuenetariko bat gertatu zenetik. Oregik greba horretan parte hartu zuen

Ekaitz Herrera LANGILERIA

1960tik aurrerako industrializazioan, Eibarko eta Ermuko ibarrak txiki geratu ziren hango tailerren zabalkundearentzat, eta handik kanpora topatu behar izan zituzten kokaleku berriak. Hori dela eta, asko izan ziren Ego ibarretik Durangaldeko ibarretara etorririko enpresak. Eurretariako bat Berrizko Inder izan zen. Enpresak Eituako industrialdean lur hartu zuen eta han dago oraindino ere, zutik, nahiz eta gaur egun enpresa

zarratuta egon. Lantegiko behar-ginak eskualdeko historian izandako grebarik garrantzitsuenetariko baten parte aktibo izan ziren frankismoaren azken aroan, 1974an. Matias Oregi izan zen grebalarietariko bat. Urte

"GUTARIKO ASKO EZ GINEN KONTZIENTE 40 EGUN EGINGO GENITUELA GREBAN"

hartako maiatzaren 15etik aurrera, Oregik eta bere lankideek 40 eguneko lanuztea egin zuten. **Inder enpresaren parean egin dugu hitzordua. Zer sentipen nagusitzen zaizu behinola lantoki izan zenuen enpresa gertu-gertutik ikusita?**

50 urte dira hemendik irten nintzela, eta nire oroitzapenak ez dira ahaztu urte hauetan guztietan. Oroitzapen onak eta eskasak ditut. Hamar urte egin nituen hemen beharrean, gora-beherekin, eta hemen gertaturikoak aldaketa eragin zuen nire

bizitzan. Asko ikasi genuen. Nire kasuan, erabaki inportante bat hartu nuen lanpostua galduko nuen jakitun.

Zer ekoizten zenuen?

1970eko hamarkadan, Inder oso enpresa inportantea zen Berrizen. 148 langile zituen. Automozioaren arloan lan egiten genuen, eta akorduan daukat gure azken urteetan baserriko traktoreentzako piezak ere egiten genituela. Barreiros, Tempo, Fabisa... Desagerturiko markak dira. Eurentzat lan egiten genuen. Bestalde, guk hemen egindako azken urteetan Chrysler etxeagaz ere lan egiten genuen, eta Motor Ibericagaz ere bai. Lan ugari zegoen hemen.

Aurten 50 urte bete dira Inderren Durangaldeko langile grebarik garrantzitsuenetariko bat egin zenuenetik. Tartean zeunden zu zu.

1973an, greba egin baino urtebete lehenago, hainbat aurrekari egon zen. Batetik, lau kaleratze egon ziren. Bestetik, langileoi Bizkaiko metalaren hitzarmenak markaturikoa baino %20 gehiago ordainduko zigula onartu zuen enpresak. Akordio hark urte biko iraupena zuen, eta, lehenengo urtean enpresak berba bete zuen arren, bigarrean ez zuen bete. Ezezkoa eman zigun. Orduan, grebara jo genuen. Nire bizitzako lehenengo greba izan zen, eta meatzaritza arloan lan egindako lankide batzuk kenduta, lehenengo lanuztea izan zen gehienontzat. Gutariko asko ez ginen kontziente 40 egunez egongo ginela greban.

Zelako egunak izan ziren?

Oso gogorrak. Langile guztiok arau moduko bat hartu genuen oinarritzat greba egiteko. *Denok batera*, esan genuen. Eta, horretarako, borrorakako molde berriak sortu genituen. Batetik, erabakiak bileretan hartzen genituen. Bestetik, langileen ordezkariak komitea sortu genuen, enpresaren aurrean talde horrek egin zituzten negoziazio lanak. Eta, azkenik, erresistentzia kutxa bat sortu genuen, langile askorentzat jasangaitza izan zitekeen-eta lanuztea. Sasoi hartako 500.000 pezeta batu eta baldintza batzuk

"IKASGAIETARIKO BAT ASANBLADA BATEAN EGOTEAREN GARRANTZIAZ JABETZEA IZAN ZEN"

ezarri genituen dirua zelan banatu erabakitzeke. Adibidez, umeak zituztenak lehenesten genituen, ezkongabe zeudenak zelan edo halan moldatuko zirelakoan. Horiek guztiak erabaki inportanteak izan ziren. Eta zein izan zen enpresaren erantzuna? Guardia Zibilari deitzea. Egunero-egunero enpresara etortzen ginenean, Guardia Zibila izaten genuen aurrean. Eta zer egin genuen horren aurrean? Errepidean zehar ibili. Horri eskerrak, jendeak gure grebaren eta mobilizazioen berri izan zuen.

40 egun joan eta gero, zelan amaitu zen greba?

Diru kontuak konponduta zeuden amaierarako. Hau da, enpresak soldatak igotzea eta ordainsariak zehaztea lortu genuen. Baina, jakina, enpresak ere bere kontentsazioa bilatzen zuen eta beharginak kaleratuko zituela jakinarazi zigun. Hasieran, hamar langile kaleratuko zituela esan zigun. Gero, zortzi. Azkenean, bi. Orduan, erabaki bat hartu genuen bileran. Batzuek lanera bueltatzea erabaki zuten. Beste batzuek enpresagaz kaleratzea adostu eta paperak egitea erabaki genuen. 51 langilek erabaki zuten kontuak egin eta enpresatik alde egitea.

Inderko grebak ikasgaiarik utzi zuen Durangaldeko langile mugimenduarentzat?

Bai, Inderko grebak hainbat ekarpen egin zion Durangaldeko langile mugimenduari. Enpresa askotako langileek komiteak sortu zituzten. Sasoi hartako erreprentazioaiteko komite horiek klandestinoak izan behar zirela ikasi genuen. Erresistentzia kutxa bat sortzea tresna inportantea izan zitekeela ikasi genuen. Beharbada, ikasgaiarik inportantea asanblada batean antolatuta egotearen garrantziaz jabetzea izan zen.

Langile mugimenduan ibiltakoa lehen, pentsiodunen mugimenduan buru-belarri orain. Inderreko grebak isiotu zizun konpromiso sozialerako sena?

Gaztetan hasi nintzen halako mugimenduetan. Elizatik urruntzen hasita nengoen eta banuen kontzientzia politikoa bat. Baina gauza bat da kontzientzia eta beste bat da borroka. Eta hemen gertaturikoa benetako esperientzia izan zen langile borrokari dago-kionez. Beste hainbateguz elkartuta gauzak lortu daitezkeela erakutsi zidan.

Efemeride baterako irudiak



Inder enpresa (ezkerrean) 1960ko hamarkadan.

Industrializazioa. 1960ko hamarkadan Eibarko eta Ermuko enpresa ugari lur hartu zuten Durangaldeko ibarretan; Berrizen, adibidez, Melchor Gabilondo, Mendiguren y Zarraoa eta Inder enpresek. Eituako industrialdean kokatu zituzten lantegiak.



Irailaren 12an Berrizko kultur etxean eskainitako berbaldia.

Oroimen ekitaldia. Irailaren 12an, Inder enpresako grebari buruzko berbaldia egin zuten Berrizko Kultur Etxean, 'Zinema, Memoria eta Giza Eskubideen zikloa'-ren barruan. Greban parte hartu zuten langileetarik hiruk berba egin zuten.



Inderko grebalaria izandakoen bazkaria Pedro Juanenean.

Ospakizunak. Langile borroka hartatik 50 urte igaro direla aprobetxatuta, garai hartan lankide izandako batzuek ospakizun txiki bat egin zuten elkarregaz. Olakuetako Pedro Juanenean batu ziren bazkaltzeko.

"18 langile atxilotu eta galdekatu gintuzten"

Duela 50 urteko testuinguruak goitik behera baldintzatu zuen greba giroa. Erregimen frankistak errepresio bideak erabili zituen mobilizazioak amatatzeko. Berrizko herritarrek, merkatariek eta inguruetak langileek elkartzunez erantzun zuten

Ekaitz Herrera LAN GATAZKA

Inder enpresako langileen borroka hainbat ikasgai eta beste hainbat lorpen egiteko balio izan zuen arren, Oregik argi du momentu gogorak ere bizi izan zituztela. Horren erakusgarri dira greban parte hartu zuten langileek haien barne antolamendurako erabili zituzten dokumentuetan -garai hartan era klandestinoan- jasorikoak. Agiriotan irakurri daitekeenez, patronalak "errepresioa, engainua eta xantaia" erabili zituen langileen kontra, eta banakako mezuak bidali zizkien grebalariei, "era mahatxagarrian" lanuztea bertan behera uzteko eskatzen. Horrez gainera, Matias Oregik jakinarazi duenez, "enpresak Avilako eta Zaragozako beharginak kontratatu zituen greban zeudenak ordezkatzeko. Horiek guztiak enpresaren estrategietako batzuk ziren".

Grebalariak jasandako errepresio erarik larrienetariko bat Guardia Zibilak egindako atxilotetak izan ziren. Izan ere, langileen barne antolamendurako agiriekin diotenez, enpresako arduradunak "kontaktatu zuzena zuen Guardia Zibilagaz, langileen izenak eman eta horiek atxilotzeko". "18 bat langile kartzelaratu gintuzten", zehaztu du Oregik. Durangora eraman gintuzten, galdeketa egitera. Neu nintzen euretari-ko bat, eta beste hainbat nire egoera berean zeuden. Gutari-ko batzuk birritan atxilotu zituzten. Etxeak erregistratu zizkiguten, etxeko artxibategiak eraman, galdeketa egin zizkiguten lankideen izen-abizenak esateko. Autore komunisteri loturiko liburuez galdetzen ziguten, ETArri buruz. Eta torturatu ere egin zituzten gutariko batzuk. Aurreko batean, lankide izandako batek komentatu zidanez, Guardia Zibilak



Matias Oregi, Inder enpresa izandakoaren aurrean.

bere ume jaioberriaren sehaska miatu zuen bertan langileak antolatzeko dokumentu klandestinoak ote zegoen ikusteko", azaldu du Oregik.

Berriztarren elkartzuna

Greba iraun zuen 40 egunetan hainbat izan ziren berriztarrek langileei egindako keinu solidarioak. 1974ko maiatzaren

17an, Inderko greba hasi eta egun bira, udalerrian greba orokorrera deitu zuten. Hori dela eta, dendari eta enpresa ugari ateak itxi zituzten. Itxierak Inder ondoko enpresetara eta eskualdeko beste hainbat enpresetara zabaldu ziren. Horren ondorioz, herriko merkatarik bakoitzak 5.000 pezetako isuna jaso zuen.

Bideoa ikusgai 'anboto.org' atarian

Honako erreportaje honek ikus-entzunezko lan bat du osagarri. ANBOTOren web atarian, Matias Oregigaz egindako bideoa dago ikusgai (www.anboto.org). Bertan, Inder enpresan bizi izandako gorabeherak kontatzen ditu. Telefono mugikorragaz aldameneko QR kodea eskaneatuta, sarbide zuzena lortuko duzu bideoa ikusi ahal izateko.



Sanfaustoetako azken txanpan sartzeko prest

San Fausto jaien azken egunak dituzte aurretik Durangon, ekitaldiz beteriko egunak. Azken urteetan indarra hartu duen Mozorro Eguna ospatuko dute zapatuan, herriko kaleak jantzi irudimentsuz beteko dituen eguna; domekan agurtuko dituzte jaiak



Esne Beltza taldearen kontzertua egongo da gaur Ezkurdin. ESNE BELTZA

Aitziber Basauri DURANGO

Lehenengo asteburuak utzitako biharamuna igarota, durangarrak prest daude sanfaustoetako azken txanpari ekiteko. Durangoko kale eta bazterrak jai giroz bustiko dira berriro ere, deneriko

ekitaldietan parte hartzeko aukera eskainita. Durangarrek zein inguruetako herrietatik etorritako bisitariek indarra agortu artean eutsiko diote asteburuari. Gaur, Trotamundos zirku konpainiaren *Finito-Infi-*

nito ikuskizuna izango da jaietan. Ondoren helduko dira Txosna Batzordeak antolatutako tortilla txapelketa eta *Monólogos a dos bandas* umore ikuskizuna. Bigarrena Andra Marian izango da, Andoni Agirregomezkorta eta Nere Garmendia aktore ezagunen eskutik. Bestalde, San Agustin kulturguneak askotariko errima eta doinuak batuko ditu. Maialen Lujanbio, Jon Maia, Jone Uria, Aitor Bizkarra, Xabat Ilarregi eta Oihana Iguaran bertsolariak Unai Iturriaga gai jartzailearen esanetara arituko dira. Ordurako amaituta egongo da Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak hartuko duen pilota partidua: Mikel Goñi eta Bernaola Oinatz Bengoetxearen eta Egurenen aurka.

Musika jaun eta jabe

Musikak osatuko du gaurko sanfaustoetako kultur eskaintza. Fanfarreen arteko norgehiagoka eta Durangoko abesbatzen ema-

naldiak egongo dira, eta herriko Nahiez taldeak ere emango du kontzertua, Ezkurdin. Txosna Batzordeak antolatuta, Txopet, Pinpilinpussies eta Belako taldeak igoko dira txosnaguneko oholtzara. Aldi berean, Xabi Solanok gidatutako Esne Beltza taldea egongo da Ezkurdin.

Mozorro Eguna

Sanfaustoetako Mozorro Eguna geroago eta indar handiagoa hartu du azken urteetan. Durangoko kale eta bazterrak mozorro irudimentsuz jantzen dira, jaietako bigarren asteburuari beste kolore bat emanez. Diana-gaz batera argituko du eguna. Zezenak dirak, xake txapelketa, umeentzako jolas eta tailerrak, patata tortilla txapelketa, elkartasun bazkaria, kaleko musika, antzerkia, kontzertua... egunaz gozatzeko aukerarik ez da faltako bihar ere. Tartean, mozorro desfilea. Domekan agurtuko dituzte jaiak, baina bien bitartean sanfasutoez gozatzeko aukerarik ez dute galduko Durangon.

ARGAZKIAK ETA BIDEOA



Mañaria erreka jaitziera (argazki galeria) ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoagaz.



Paella lehiaketako bideoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoagaz.

Herritarren parte hartze "handia"

Udalak sanfaustoetako lehenengo asteburuako parte hartze "handia" nabarmendu du. Sorturiko jai-giroa eta gertakari aipagarriak egon ez izana azpimarratu dute, eta jai egitarauak "arraskata" handia izan duela gaineratu. Udaletxeko balkoitik jaurtitako txupinazoan "jendetza" batu zela adierazi dute, eta antolatutako kontzertuek milaka lagun bildu zituztela. Shinova taldearen kontzertuak 6.000 lagunetik gora batu zituen, eta Puro Relajok 3.000tik gora. Mañaria erreka jaitziera, lehiaketa gastronomikoak eta kultura-eta familia-jardueretan izandako parte hartzea ere nabarmendu dituzte.

Intzidentziak

Udalzaingoak bederatzita lagun artatu zituen, urriaren 11tik 14ra. Horrez gainera, bederatzita telefono mugikorren eta diru-zorro baten lapurreta erregistratu zituzten; ibilgailuetan izandako kalteengaitik salaketa bi ipini zituzten, eta bat droga edukitzeagaitik.

Durango Uria pintura lehiaketak 59 lan batu ditu aurten

A.B. DURANGO

Durango Uria pintura lehiaketak harrera ezin hobea izan du. 24. aldia duen sariketarak "markak hautsi" ditu, Durangaldeko Artisten Elkartearen esanetan. Aurreko edizioan baino %10 koadro gehiago aurkeztu dituzte, 59 guztira. Horieta 19 bertako artistek egindakoak dira. Errioxako, Kantabriako, Galiziako eta Madrileko artistek ere bidali dituzte euren lanak. "Lehiaketak Euskal Herrian zein kanpoan geroago eta garrantzi handiagoa duen isla da hori", esan dute. Lanak Ezkurdi erakustazokan daude, urriaren 20ra arte. Sari banaketa domekan egingo dute, 13:00etan.

Durangoko Udala Garabide elkarteko kideekin batu da

Erakunde biak hizkuntza gutxituak biziberritzeko duten lankidetzaren harira elkartu dira

A.B. DURANGO

Durangoko Udala Garabide elkarteko ordezkariekin elkartu da aste honetan, erakunde biek hizkuntza gutxituak biziberritzeko duten lankidetzaren harira. Mundu osoko hizkuntza gutxituetako aktibistei euren hizkuntzak biziberritzeko eta suspertzeko formakuntza eskaintzea da lankidetzaren horren helburua. Hainbat hizkuntza komunitetetik etorritako 18 ordezkariak elkartu dira Durangon. Irailaren 20an etorri ziren Euskal

Herrira, eta urriaren 31ra bitartean egongo dira bertan.

Udalak eta Garabidek lankidetzaren garrantzia nabarmendu dute, hainbat kulturatako ordezkariekin esperientziak partekatzeak aukera izan dutelako. "Ahalegin amankomun horiek hizkuntza komunitate horien autonomia eta euren hizkuntzaren biziberritzea kudeatzeko gaitasuna sendotzeko programak sortzea erraztu du", azaldu dute udal ordezkariak. Gaineratu dute udalaren eta Garabideren arteko lankidetzaren



Hainbat hizkuntza komunitateko 18 ordezkari Durangon izan dira.

hitzarmena "funtsezkoa" izan dela hizkuntzen sentsibilizaziorako eta babeserako hainbat proiektutan, eta "arreta berezia" ipini dutela mehatxatuta dauden hizkuntzetan. "Ezagutza eta es-

perientzia trukeen bitartez, kultura eta hizkuntza identitateak berreskuratzen lagundu du hainbat herrialdetan, hala nola Guatemalan, Ekuadorren eta Kolonbian", azpimarratu dute.

Durangoko bidegorri sareari 18 kilometro gehituko dizkiote

A.B. DURANGO

Durangoko Udalak 18 kilometro gehituko dizkio herriko bidegorri sareari. Udalak mugikortasun iraunkorrera bideraturiko espazioak handituko ditu lan horiekin, "berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko eta oinezkoen zein bizikleta bidezko herriarren joan-etorri kopurua handitzeko". Herrigunean hainbat lan egitea aurreikusi dute. Esaterako, Olleria, Larrasoloea, Landako, Frai Juan Zumarraga, Alluitz eta San Roke kaleak batzen dituen eraztunean galtzadak egin gura dituzte bizikletari lehenasuna emateko.

Udalak Montorreta eta Ramon Rubial kaleetako seinaleak ere hobetuko ditu, inguru hori bizikletentzako puntu beltz modura identifikatuta dagoelako. Gainera, Tabirabideko zati batean bizikleta-erreiaren trazadura aldatuko dute, Alde Zaharragaz eta San Agustinalde kaleagaz lotzeko. Lanek 265.000 euroko aurrekontua dute.

Ernairen aldeko gaualdia Zaldibarko gaztetxean

Azaroaren 2an izango da, 19:00etatik aurrera. Eusko Jaurlaritzak Ernaiko hainbat kideri ipinitako isunak ordaintzera bideratuko dute jaialdian baturiko dirua. Eskualdeari dagokionez, 15 lagunek jaso dute isuna. 36.500 euroko zigorra dute guztira

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko gaztetxeak gaualdi solidario bat hartuko du azaroaren 2an. Jaialdiak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Ernai gazte antolakundeko hainbat kideri ipinitako isunak ordaintzeko funtsak batzea izango du helburu. Horretarako, egitarau bat prestatu dute. 19:00etan, terraza giroa alaitzen izango dira, eta 21:00etan kontzertuak hasiko dira: Reder, Ezezez, Xaukena Xauk eta Totozer MJ musika jartzailea igoko dira eszenatokiko oholtzara. Bertaratzten direnek 3 euroko sarrera ordaindu beharko dute. Durangaldeko Ernaik jakinarazi due-



Durangaldeko Ernaik Zornotzan eginiko agerraldi bat. ERNAI

nez, 300.000 euroko isun horretako zati bat eskualdeko 15 kideri ezarri die Segurtasun Sailak. 36.500 guztira. Hori dela eta, jaialdia joatera eta auzia "sozializatzea eta kaleratzea" deitu dituzte herritarrek.

Eusko Jaurlaritzak gazte antolakundeari ipinitako isunak testuinguruan kokatzeko, 2023ko irailaren 22ra egin behar da atzera. Ertzaintzak Ernaiko 133 gazte identifikatu zituen Bilbon eta Gasteizen eginiko protestetan, "desorden publiko larria" eragitea egotzita. Gazteek protesta bi egin zituzten egun hartan, Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazte arabarren kartzelaratzea etetea eskatzeko. Eserialdiak eta trafiko mozketak egin zituzten Espainiako gobernuak Bilbon duen ordezkartzaren aurrean eta Ertzaintzaren Gasteizko komisariaren aurrean.

Bilboko eta Gasteizko mobilizazioez gainera, Durangaldeko Ernaik eskualdean bertan egin zuen protesta, 2023ko irailaren 27an. Gazte antolakundeko kide batzuek errepidea moztu zuten Traña-Matienako San Blas hotelaren parean.



URRIKO JAIK



URRIAK 19, larunbata

10:00-14:00 Ibilbide gidatua "Andabidea zordanbidea. Mallabia eta hileta-errituak historian zehar".
Hizkuntza: Euskara / Elkargunea: Udaletxe aurrean
Izen ematea: www.ondareabizkala.eus
Leku kopuru mugatua. Informazio gehiago: Gerediaga Elkarte. Antolatzailea: Udala eta Gerediaga

URRIAK 20, igandea

11:00 Superigandek: Multikirola eskolan. Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T.
17:00-19:00 Zine foruma: "No soy un hombre fácil" Kontzejuzarrean. Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

URRIAK 25, ostirala

16:30 Buruhandiak, eskolatik parkera
17:00 Txondor Herri Kirol taldearen erakustaldia, parkean. Antolatzailea: Txondor Herri Kirol taldea
18:30 Txupinazoa: Malle Euskal Pilota Kluba udaletxeako balkoitik.
Ondoren Elektrokela elektrobaranga
18:30-21:30 III. Kick Boxing-boxeo gaua III. Velada Kick Boxing, herriko frontoian.
Sarrera: 15€. Antolatzailea: Udala
19:00 Elizpeko pilota txapelketaren finala elizpean. Antolatzailea: Zaparrada elkarte
20:15 Musikabia taldea parkean

20:30 Hanburgesa pintxoak parkean
Tiketak: Pintxo bat euro bat. Antolatzailea: Udala

21:00-21:30 Dantza: "Aske izan nahi dut eta aske zurekin, eta honek?" Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

21:30 AIAMA eta Beranduegi taldeak, parkean

URRIAK 26, larunbata

9:00etatik aurrera Frontenis maratonia (bikoteka) herriko frontoian. Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T.
11:30 Duatloi txikia herri barruko zirkuituan
Antolatzaileak: Guraso elkarte eta 7 Pago Kultur elkarte

12:00-15:00 Mallabiko VII. Arda Ferixie, probalekuan
Sarrera 10€. Antolatzaileak: Udala eta Ardesaltsan

14:30 Herri bazkaria eta bingo musikatua parkean.
Antolatzailea: Gazte Asanblada

16:00-19:00 Jokai, euskal mitologian oinarritutako jolasak umeentzat plazan, euria bada elizpean.
18:00 Kale animazioa Uk03 txarangarekin.
22:30 Kontzertua parkean.
DUPLA, UNIDAD ALAVESA, EZPALAK
Ondoren DJ Marrazo Herriko soziedadean.
Antolatzailea: Zaparrada elkarte

URRIAK 27, igandea

9:00etatik aurrera Frontenis maratonia (bakarka) eskolako frontoian. Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T.
10:00-14:00 III. Autoen Slaloma Goitondo Beheko Lau industrialdean. Antolatzailea: Udala

16:30 Kidam magoa umeentzat probalekuan.
Ondoren txokolatada.

17:00 Mus txapelketa Kontzejuzarrean
Izen-ematea: 10€ bikoteko. Antolatzailea: Udala

Urriak 28, astelehena (GAU BELTZA)

19:00 Hitzaldia: "Heriotzak bizitzen irakatsi dit", Kontzejuzarrean.
Pello Mugarza eta Irene Sanionandia

URRIAK 30, asteazkena (GAU BELTZA)

Oihana Etxegibel ipuin kontalaria
"Xanduli-manduli kikiriki ikarari ezin eutsi!" liburutegian.
17:00: HH 3-4-5
18:00: 1.mailatik gora

URRIAK 31, osteguna (GAU BELTZA)

16:30 Ginkana, Kontzejuzarrean hasita
1. mailatik gorakoentzat.
18:00 Kalabazak hustu; aurpegiak eta kareak margolzea. Kontzejuzarrean. Ondoren Photocall-a plazan
19:00 Iluntasuna piztu... ekitaldia! plazan
Ondoren herri kantutegia erronda!
Bukatzeke: Txorizo pintxoak eta Takittorekin musika!
Antolatzaileak: Gaba Baltza, Sabibu, Zaparrada elkarte, Gazte Alaia dantza taldea, Gazte Asanblada, Guraso elkarte, Mallabiko Eskola, Mendibil aberbatza eta Udala

JAIK ERE ASKE BIZI, GOZATU ETA GOZARAZI!

"Elegante Eguna, prendarik onenak ateratzeko eguna"

MAREN DA COSTA, IARE LANDA ETA MIREN ASUMENDI GAZTE ASANBLADA Urriaren 25etik 27ra bitartean, Urriko Jaiak ospatuko dituzte Mallabian. Jai horren barruan, barikuan, urriak 25, Elegante Eguna berreskuratuko dute



Ezkerretik hasita, Maren Da Costa, Iare Landa eta Miren Asumendi.

Maialen Zuazubiskar MALLABIA Armairuko arroparik dotoreenak atera eta kalera irteteko eguna izango da urriaren 25a Mallabian. Herriko Gazte Asanbladako ki-

deek urte luzez galduta egon den Elegante Eguna berreskuratzea pentsatu dute, Urriko Jaien barruan. Herritarrei eta Mallabira bertaratzen direnei

kalera "dotore-dotore jantzita" irteteko deia egin diete. **Elegante Eguna berreskuratzea erabaki duzue. Zer dela eta?** **Miren Asumendi:** Haurrak

ginenean, Elegante Eguna egiten zen herrian. Eta, azken urtean, Mallabiko Gazte Asanblada eta herriko beste elkarte batzuk egun hori antolatzen hasi gara, herria berpizte aldera. Urriko Jaiak egun horretarako aproposak izan zitezkeela pentsatu genuen, guk geuk ere bizi ahal izateko.

Lehenengoz parte hartuko duzue Elegante Egunean?

Iare Landa: Azkenengoz 2017-2018 bueltan ospatu zen. Orduan haurrak ginen eta, egia esanda, ez daukagu jai horren oroitzapen handirik.

M.A.: Nik badut akorduan, eta argazkiren batzuk ere ikusi izan ditut, baina behin ere ez dut egun hau ospatu.

Dagoeneko iragarri duzue jai berreskuratuko duzuela. Zelan erantzun du jendeak herrian?

I.L.: Oraingoz oso erantzun ona izan duela esango nuke, jendea pozik dago. Gaia zeresana ematen dabilela esango nuke.

Maren Da Costa: Jendea gogotsu dago jantziak armairutik atera eta berriro elegante jantzeko.

M.A.: Eta gure adin tarte bueltakoak ere desiratzen daude horrela jantzeko lehenengoz.

Zuek gogotsu zaudete?

M.A.: Bai, baina guk erantzukizun apur bat ere badugu. Izan ere, geu gabilza antolatzen, eta dena pasatu arte ez dugu arnasa lasai hartuko. Baina, tira, azkenengo edizioa antolatu zu-

tenekin hartu-emanetan gaude eta asko laguntzen dabilta.

Urriaren 25ean Mallabira doanak zer aurkituko du bertan?

M.D.: Elegante Eguna Urriko Jaietako lehenengo egunean izango da. Beraz, txupinazioa eta elektrotzaranga egongo dira lehenengo. Gero, 20:30ean, denok dotore jantzita argazki bat aterako dugu. Eta, gauerdian, 2024ko Miss eta Mister Mallabia nortzuk diren iragarriko dugu.

I.L.: Bozketa baten bitartez egingo dugu hori. Kutxa bi ipiniko ditugu, bata soziedadean eta bestea herrikoan. Botorik gehien jasotzen dutenak izango dira 2024ko Miss eta Mister Mallabia.

M.A.: Beraz, Elegante Eguna armairuko prendarik onenak atera eta dotore-dotore jantzeko eguna izango da. Animatu, denok gonbidatuta zaudete!

Hurrengo egunerako herri bazkaria antolatu duzue.

M.A.: Bai, eta hori ere Gazte Asanbladakook antolatu dugu. Bazkarira joan gura dutenek urriaren 19ra arte eskuratu dezakete txartela, herriko tabernan edo 634 436 799 telefono zenbakira deituta.

"GAUERDIAN, 2024KO MISS ETA MISTER MALLABIA NORTZUK DIREN IRAGARRIKO DUGU"

Muntsaratzeko aparkaleku falta eztabaida iturri

Gobernu taldeak bilera bat egingo du Muntsaratzeko auzotarrekin urriaren 23an; 18:30ean izango da



Muntsaratz.

M.Z. ABADIÑO

Azken egunotan, Muntsaratzeko aparkaleku falta eztabaida iturri da Abadiñon. Horren harira, eta arazoari konponbide bat emateko asmoz, gobernu taldeak herri batzar bat antolatu du urriaren 23rako. Batzarra Muntsaratzeko udal lokaletan izango da, 18:30ean. "Auzoko mugikortasunaren inguruko eta, batez ere, aparkaleku faltaren arazoari aurre egiteko proiektua ipiniko dugu mahai gainean. Izan ere, aurreko lege-gintzaldian enpresa batek diseinaturiko planoaren gainean auzotarrek egindako ekarpenak eta hobekuntzak txertatu ditugu", azaldu dute gobernu taldekoek. Bertan guztira 80 bat plaza sortzea aurreikusten dutela azaldu dute.

Plaza horien kopururik handiena Arlozabal, Amandresolo eta Olalde kaleak ibilgailuentzat

norazko bakarrekokoak eginez sortuko dela jakinarazi dute. Horretarako, 50.000 euro erabiliko dituzte. Datorren asteetan hasiko dituzte lanak.

EAJ kritikoa

Prentsa ohar baten bitartez, Abadiñoko EAJk Muntsaratzeko arazoa ahalik eta lasterren konpontzeko exijitu dio gobernu taldeari. "Aurreko legealdian, alkatetzan geundela, azterlan bat enkargatu genuen gai honi konponbidea emateko. Baina egungo gobernu taldeak (EH Bildu eta Abadiñoko Independiente Berriak) ez du proiektua garatu, eta, horregaitik, arazoak berdin-berdin jarraitzen du", azaldu du Mikel Garaizabal EAJren bozeramaileak. Jeltzaleek azterlan horretan jasotzen dena egiteko eskatu dute.

Argiteria berrizteko lanak lehiaketara atera dituzte Abadiñon

M.Z. ABADIÑO


Abadiñoko Udalak, herrian "energia aurrezteko eta ingurumen hobetzeko duen konpromisoari jarraituta", egun dagoen argiteria aldatzeko ekimenari heldu dio.

Hori horrela, jadanik publikoa den lizitazioan, herriko hainbat zonaldeetako argien lau aginte-zentro zehazten dira: Txinurrisolo, Arlozabal eta Iturritxo kaleen, eta Txanporta plazaren inguruan.

Abadiñoko Udalak 130.000 euro erabiliko ditu proiektu honetarako, eta interesdunek azaroaren 6ra arteko epea dute euren proposamenak aurkezteko.

Oraindik ez zara ANBOTOko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu **Anbotoko**
whatsapp kanalera



Eskaneatu
QR kodea:



* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

Mankomunitateak antsietatea kudeatzeko programa hasiko du

Egitasmoa urtarrilean hasiko dute eta 20tik 65 urtera arteko andrei zuzenduta dago; 15 saio egingo dituzte

Aitziber Basauri DURANGALDEA Durangaldeko Mankomunitateak antsietatea kudeatzen eta kontrolatzen ikasteko programa berri bat antolatuta du emakumeentzat. Urtarrilaren 15ean hasiko da eta psikoterapeuta aditu batek zuzenduko du. Ordu biko 15 saio izango dira guztira. Izena emateko, Adikzioak Prebenitzeko Zerbitzura jo daiteke.

Mankomunitateak martxan ipiniko duen egitasmoa 20tik 65 urtera bitarteko emakumei dago zuzenduta. Autokontrol emozionala, trebetasun per-

sonalak eta gizarte-laguntzako sareak areagotzea da helburua, azaldu dutenez; era berean, psikofarmakoen kontsumoa murrizteari edo bertan behera uzteari buruzko tresnak eskainiko dituzte. Doako programa da eta zenbait ezaugarri bete behar da parte hartzeko. Horregaitik, izena ematen dutenekin elkarriketa pertsonalizatuak egingo dituzte. Saioak eguaztenetan izango dira, 15:30etik 17:30era. Gehienez 20 emakumek parte hartuko dute.

Garaiko jubilatuek Gernikara joango dira urriaren 31n

M.Z. GARAI

Garaiko Nagusientzat adina ez da oztopo bizimodu aktibo batez gozatzeko. Eta hori bultzatzeko eta bakardadeari aurre egiteko, eguenero Otea-Loran elkartearen batzen dira arratsalde pasatu, kartetan jokatu eta elkarren artean berriketan egiteko. Baina, oraingo honetan, herritik irtengo dira. Hileko

azken eguenerako, urriak 31, Garaiko Nagusiek txango berezia antolatu dute. Gernikara joango dira, arratsaldea pasatzera.

16:00etan ipini dute ordua, Garaiko plazan. Gernikan, Bartzar Etxea, beirateak eta Gernikako arbola bisitatuko dituzte, besteak beste.

Gernikako txangora joan gura duenak izena eman beharko du urriaren 28a baino lehenago, Garaiko Nagusien Whatsapera idatzita.



Otxandioko plaza.

Zapatuan ibilaldia egingo dute Otxandioren izaera ezagutzeko

Udalak eta Gerediaga elkarteak ibilaldi gidatua antolatu dute, Europako Ondare Jardunaldien barruan

A.B. OTXANDIO

Bidea, muga eta uria izenburupean, ibilaldi gidatua egingo dute Otxandion, udalak eta Gerediaga elkarteak antolatuta. Europako Ondare Jardunaldien barruko jarduera da eta zapatuan izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, "Otxandioren sorrera ulertzeko, kokapena ezagutu behar da lehenengo: Bizkaiko mugaren ertzean, bidearen barruan dago kokatuta. Horregaitik, errepidea da Otxandioko bizkarrezurra eta zaina". Hori ardatz hartuta ekingo diote ibilbideari, 17:00etan, San Roke

ermitan, mugak eta bideak horixe egiten dute topo eta.

Aduana Zaharretik igarota, Uribarrena zeharkatu eta Ospitaleraino joango dira. Ostatu ematen zuten han, uriaren eta bidearen aldamenen. Ondoren, Santa Marina elizarako bidea hartuko dute, dauden eraikinek eta orduko instituzioek izan zuten garrantzia ulertzeko. Plazaz, udaletxea, frontoia eta pasealekua igaro eta gero, Artekaletik Andikona plazara joan eta Urigoienatik jarraituko dute. Muga-gurutzetik San Antonio ermitara helduko dira.

Perretxiko erakusketa egingo dute Otxandion

Domekan izango da, Kementsu elkarteak eta Mirugain mendizale taldeak antolatuta

A.B. OTXANDIO

Otxandion 34. Perretxiko Erakusketa egingo dute domekan, Kementsu elkarteak eta Mirugain mendizale taldeak antolatuta. Pasealekuan izango da, 10:00 inguruan hasita. Bezperan baturiko aleak erakutsiko dituzte bertan. Izan ere, perretxiko bila joateko irteera antolatu dute zaturako. Plazatik irtengo dira, 09:30ean. Hala ere, taldean joan barik norberak bere kabuz baturiko perretxikoak ere hartuko dituzte antolatzaileek domekako erakusketarako. Azaldu dutenez, 13:00ak arte egongo dira plazan perretxikoak jasotzen.



Perretxikoak.

IURRETA

Dantzarien jai handia

Urriaren 12an Urrijena ospatu zuten lurretan, lehenengo eta oraingo dantzariak batzen dituen egun handia. Ohiturari eutsita, azken bost urteotan 65 urte bete dituzten dantzariak omendu zituzten. Eta aipamen berezia egin zieten 80 urtetik gorakoei. Juanito Gallastegi abadea eta Jon Irazabal historialaria ere izan zituzten gogoan, dantza taldearen alde egin zuten lanagaitik.



TXEBI ARRIAGA



30 euro
urtean!

Okm:
batzen gaituen
distantzia



Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

URRIKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz. Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera eramateko
1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Errigoraren eskutik
Euskal Herriko produktuen otzara.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Atxondoko Itziar taberna Bizkaiko Tortilla Kopan

Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak Tortilla Koparen hirugarren aldia hasi du. Lehian dauden 64 tabernetatik bat eskualdekoa da: Atxondoko Itziar Taberna. Epaimahaiaren saria ez ezik publikoarena ere badago eta gura duenak bozkatu dezake

J.D. ATXONDO

Atxondoko Itziar taberna famatua da bere tortillengaitik, eta bertako arduradunek Bizkaiko Tortilla Kopan parte hartzea erabaki dute. Lehia ez da nolana hikoia, guztira 63 hautagai daudelako Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak hirugarrenez antolatu duen txapelketan. Parte hartzaile horien guztien artean Atxondokoa da eskualdeko bakarra.

Sari bi daude jokoan: epaimahaiarena eta publikoarena. Azken honetan, gura duten denek parte hartu dezakete. Botoa tabernako kartel batean dagoen QR kode baten bitartez eman daiteke. Botoa ematen duenak tortilla probatu duela frogatu beharko du, botoagaz batera kontsumo-tiketaren argazki bat atxikita. Publikoaren botoa emateko epea azaroaren 18ra artekoa da. Sari banaketa azaro amaieran San Mamesen egingo den gala batean egingo dute.



Atxondoko Itziar taberna.

Pintxo irabazlea

Itziar taberna behin baino gehiagotan nabarmendu da antzerako txapelketetan. Aurten bertan, maiatz inguruan, elkarte berak antolaturiko Bizkaiko Pintxo Txapelketan parte hartu zuen

pintxo tradizionalen atalean, eta finalisten artean egotea lortu zuen. Honako pintxo hau aurkeztu zuten: kalabazin arrautzetzatua ahuntz-gazta, urdaiazpiko iberiko, tipula karamelizatu eta etxeko alioli saltsagaz.

Dieta orekatu baterako gakoak, Izurtzako berbardian

J.D. IZURTZA

Elikadura ohitura sanoak eta dieta orekatu batek osasuna hobetzen lagundu dezakete. Ildo horretatik, Izurtzan *Dieta equilibrada* izeneko berbardia antolatu dute urriaren 28ko astelehenerako. 17:00etan izango da, Izurtzako nagusien egoitzan. Kontsumobide kontsumoko euskal erakundeak antolatu du berbardia, Durangaldeko Mankomunitatearen laguntzagaz.

Berbaldian gomendioak emango dituzte dieta orekatu bat lortzeko. Horregaz batera, elikagaien etiketetako informazioak gure elikadurari buruzko erabakietan duen garrantzia ulertzeko gakoak emango dituzte, besteak beste.

Bazkaria eta musika Mañarian, Santa Ursula eguna ospatzeko

Datorren astelehenean pilotalekuan egingo den bazkaria 70 lagun baino gehiago batuko dira

J.D. MAÑARIA

Urriaren 21a Santa Ursula eguna da, eta, urteroko tradizioari eutsita, Mañariko Ursula Donea nagusien elkarteak bazkaria egingo du. Herriko zaindariaren omenezko bazkaria jendetsua izaten da eta aurten ere 70 lagunetik gora batuko ditu. Elkarteko kideak bertaratuko dira batez ere, baina baita elkartetik kanpoko zenbait ere. Parte hartzaileak eguerdian elkartu, eta bazkaria 14:30ean hasiko da. Mañariko pilotalekuan izango da.

Trikitixa doinuak

Bazkaria ez da izango Santa Ursula eguneko osagai bakarra. Bazkalostea musikagaz girotuko dute, Mañariko Udalak antolatuta. Musikari dagokionez, aurreko urte bietako eskaintza aldatu dute aurten. Azken urte bietan Puro Relajo taldeak girotu zuen arratsaldea, eta aurten trikiti doinuak izango dira nagusi. 17:00etan hasita, bertaratzen direnek Gorka Valdesen eta Mirari Azkunereren musikaren doinuean egingo dute dantza.

'Bertokoak berton', berriro martxan

'Bertokoak berton' dinamikaren barruan, jarduerak egingo dituzte Euba, San Migel, Etxano eta Boroa auzoak dinamizatzeko helburuagaz; ohikoa izan duten moduan, kultur, kirol zein gizarte arloko ekintzak egingo dituzte urritik urtarrilera bitartean

A.M. ZORNOTZA

Urritik urtarrilera bitartean Zornotzako landa eremuak dinamizatzeko egitaraua aurkeztu dute. 'Bertokoak berton' dinamikaren barruan, pintxo tailerrak, defentsa pertsonal ikastaroa eta kontzertuak egingo dituzte Euba, San Migel, Etxano eta Boroa auzoetan. 'Bertokoak berton' Arkalaz ekimenaren barruan sortu zen, eta herriko eremu guztiak integratu eta batzeko helburua du. Aurtengo edizioak hainbat berrikuntza izango du. Udalak Iñaki Basaberen eta Bilbao Bel Cantoren kontzertuak antolatu ditu San Migelen (azaroaren 30ean izango da lehenengoaren emanaldia, eta abenduaren 29an bigarrena); Boroan bingo festa egingo dute urtarrilaren 25ean; Etxanon, *Eratsi SL* antzezlanaren egongo da ikusgai. Ekintza horiek auzo horietan baino ez dituzte egingo. "Ekitaldi irekiak izango dira eta beste auzoetako bizilagunak ere parte hartzera gonbidatuta daude, jakina", zehaztu zuen Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak ekimenaren aurkezpenean. Hain zuzen ere, Salterain alkateagaz eta Koldo Bilbao zinegotziagaz batera, Carlos Osa (San Migeleko auzokidea), Pascual Uriarte (Etxano), Iñigo Gorospe (Euba),



'Bertokoak berton' dinamika joan zen astean aurkeztu zuten.

Kontxi Gerediaga eta Isabel Basagoiti (Boroa) herritarrek parte hartu zuten aurkezpenean. Ekimena jarduerak herrigunetik landa-eremuetara zabaltzeko helburuagaz jaio zen, orain urtebete. Denbora honetan, udala auzo hauetako bizilagunekin batu da hauen iritziak aintzat hartu eta euren interesei erantzungo dien programazioa ontzeko helburuagaz.

Auzo bakoitzak egitarau propioa izango du; hala ere, goian aipaturiko laurak izan ezik, gainerakoak auzo guztietan

egingo dituzte. Gastronomiari dagokionez, pintxo tailerra eta *Kalabaza hamaika eratan* tailerra egingo dituzte; eta terrarium bat zelan sortu ere landuko dute; defentsa pertsonala jorrazteko tailerrak ere eman go dituzte.

'Bostekoa' Zornotzan

Bide batez, Zornotzako Udalak oharra kaleratu du *Bostekoa* erakusketa herrian dela esateko. Erakusketa ibiltaria osatzen duten obrak Zelaieta zentroan egingo dira, azaroaren 3ra arte.

Udalak deia egin du Zumelegi erreka auzolanean garbitzeko

Domekarako, urriak 20, deialdia egin dute Elorrion, Zumelegi erreka garbitzeko; 09:15ean hasiko dira

A.M. ELORRIO

Elorrion-Atxondo Baso Biziak elkarteak Zumelegi erreka garbitzeko ekintza antolatu du, Elorrioko Udalaren babesagaz. Ekintza sei urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago; hala ere, 6tik 11 urtera bitarteko umeek nagusi baten zaintzapean joan beharko dutela zehaztu dute. Erreka garbitzen parte hartzeko, Anbotopeko dendan, Iturri kultur etxean edo udalaren webgunean eman beharko da izena. Umerik barik doazenez 09:00etan dute hitzordua, herri-

ko plazan; taldetan banatu, zabor poltsak banatu eta errekan jarduteko prozedura azalduko dute orduan. Ondoren, zaborra biltzeari ekingo diote. Umeekin joateko asmoa dutenek, ostera, 11:00etan dute hitzordua; bilketa egokitutako gune batean egingo dute. Baturiko zabor guztia herriko plazan erakutsiko dute, 13:15ean.

Antolatzaileek katiuskak edo galtza-botak eta eskularruak eramateko gomendatu dute; baita zaborra batzea erraztu dezakeen materiala ere.

Berriztu azoka antolatu dute, bederatzigarren aldiz

Urriaren 26an egingo dute bigarren eskuko azokaren edizio berria; probalekuan izango da, 10:00etan hasita

A.M. BERRIZ

Kontsumoa gutxitzea, berrera-biltzea eta birziklatzea sustatu gura dituen Berriztu azokaren edizio berri bat egingo dute urriaren 26an, bederatzigarrena, hain zuzen ere. "Erabiltzen ez ditugun edo botatzeko gaituen gauzei beste erabilera bat emateko aukera bat eskaintzea da asmoa", azaldu dute antolatzaileek. Azoka 10:00etatik 14:30era bitartean egingo da zabalik. Berriztu bigarren eskuko azokak ohiko itxura berreskuratuko du aurtengo edizio honetan.

Alaine Melwanik murala margotuko du goizetik hasita, eta Nerea Aizpuruak eta Licenciado Vidrierak kontzertua emango dute. "Azoka bat baino gehiago, Berriztu topagune bat izatea gustatuko litzaziguke", gehitu dute egitasmoaren antolatzaileek.

Bide batez, antolatzaileek gogoratu dute zabalik dagoela izena emateko epea. Horretarako, 656 764 696 edo 635 755 737 telefono zenbakietara deitu beharko da (bost euro ordaindu beharko dira mahaiko).

Urriak 23 19:00
ETXE BAT NORBERARENA
liburuan oinarrituta
HITZA ETA MUSIKA

Iurreta
GONBIDAPENAREKIN
ERRESERBAK

SARRERA 946 81 27 26
GONBIDAPENAREKIN 688 863 736
biblioteka@iurreta.eus

BERRIZKO AGENDA KULTURALA

Soy Nevenka (zinema)
ESC - Galder (360º kontzertua)
Restos de un naufragio

Urriak 20, 19:00
Urriak 25, 21:00
Urriak 26, 19:00

Programazioa

Lauaxeta Ikastolan futbol zelai berria inauguratu dute asteon

Ikastolako ikasleek eta familiek ez ezik, herriko edozein kirol taldek ere erabili ahal izango du zelaia

J.D. ZORNOTZA

Zornotzako Lauaxeta Ikastolan belar artifizialeko futbol zelai berria inauguratu zuten eguaztanean. Ekitaldian, Zornotzako alkate Ainhoa Salterainek eta ikastolako zuzendari Unai Atris-

tainek ez ezik, ikastolako ikasle ohi bik parte hartu zuten: Maite Zubieta Athleticeko eta Espainiako selekzioko jokalariek eta Jon Mikel Magunagoitia Eibarko jokalariek. Zelaia ikastolako ikasleek ez ezik, herriko

edozein kirol taldek ere erabili ahal izango du. "Horrelako azpiegiturak funtsezkoak dira gure gazteen garapen eta ongizate pertsonalean. Udalarentzat lehen-tasuneko da herrian kalitatezko kirol instalazioak izatea eta zornotzarrek horiek erabili ahal izatea", adierazi zuen Salterain alkateak. Instalazioak Europako ingurumen araudiak betetzen ditu, lesio arriskuak minimizatzeko diseinatuta dago eta jokoaren errendimendu optimoa bilatzen du.



Aurkezpeneko irudia.



POLITIKAN

JESICA RUIZ PEREZ
PSE-EE

Atzeko lana

Jaietako zinegotzi naizen aldetik, oso balorazio positiboa egiten dut lehen asteburuari dagokionez. Denentzako jarduerak egiten saiatu gara: musika, antzerkia, haur-parkeak, lehiaketa gastronomikoak, zezenak dira... Badakigu, ados ez daudenak beti egongo direla eta kritikak egotekotan... konstruktiboak izan daitezela, hauek beti oso ongi etorriak izango dira eta!

Gainera, berdintasun zinegotzia izanda, lehen asteburu honetan eraso matxistaren telefonoak jo ez izanak oso albiste ontzat hartzen dut. Tristea da telefono hau jarri behar izatea.

Aurten, 160 jarduera antolatuta ditugu. Guztiek lan handia dute atzean, isileko lan hori, udaleko Kultura taldearena, udaltzaingoarena, Ertzaintzarena, garbiketako langileena, aurreko hiletan laguntzen egon direnena, jai batzordeko pertsonena, eta, nola ez, auzoko elkarteena, gure laguntzarekin auzoetako jarduerak antolatzeaz arduratzen direnak. Eta ahaztu gabe Gurutze Gorria, ekitaldi guztietan dagoena, zerbait gertatzen denean erantzun egiten duena.

Goazen bigarren asteburuaren bila! Mozorrotu, gozatu, errespetatu, eta Patxikotxu agurtu. Eta bai, gogoratu, hain gustuko dituzuen jarduera horietako bakoitzaren atzean jende asko dagoela lanean.

Hain garrantzitsua den eta askotan ahaztu egiten zaigun atzeko lan horrengatik..., eskerririk asko guztioi.

DURANGALDEA ASTEON

Bibliotekaren eguna ospatzeko emanaldia

IURRETA Datorren eguaztanean, urriak 23, Bibliotekaren Eguna ospatzeko emanaldia antolatu dute Iurretan. 19:00etan, *Etxe Bat Norberarena* liburuan oinarrituriko ikus-entzunezkoa emango dute. Hitzak Yolanda Arrietak jarriko ditu, eta musika Peru Galbetek. Emanaldira sartzeko, gonbidapena eskatu behar da.



GOIENA

Udalatzeko gurutzea kendu dute

ELORRIO Asteburuan, mendizaleen omenez Udalatzeko gurutzea kendu dute; oinarria eta zutoin nagusia geratzen dira orain, eta zutoin horren goiko aldean zerra bat eta "2024.10.12" mezua agertu da idatzita. Gurutzea 1971n ipini zuten, hildako mendizaleen omenez. Arrasateko Udalak ikerketa egiteko asmoa duela agertu du sare sozialetan.



Lasargurenak hartuko du Saroberen lekukoa

DURANGO Urte luzez San Fausto egunez dantzan egin eta gero, Jon Sarobe durangarra azkenengoz irten zen udaletxe aurrera joan zen domekan. Sarobek azkenengoz egin zuen dantzan, eta Aritz Lasargureni eman zion ohorezko aurrekua dantzatzeko lekukoa. Ekitaldi amaieran, Durangoko Udalak aitortza egin zion Saroberi.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua




LABIRINTOA



TOPATU ETA MARGOTU

Beheko irudian topatu itzazu ondoko objektu hauek eta margotu irudia ezkerreko ereduari jarraituta.







Joserra Rodrigo entzuleen klubeko saio batean.

"Musikagaz egiten zen trukea erromantikoagoa zen lehen"

MUSIKA JOSERRA RODRIGO SANTAMARIA

MUSIKA ADITUA ETA 'LPAREN KLUBA'-REN GIDARIA

Durangoko Bizenta Mogel bibliotekak 'El Club del LP' entzuleen kluba aurkeztu du

Aritz Maldonado DURANGO

Bizenta Mogel bibliotekak nobedade sorta prestatu du aurtengo ikasturteko programazioan. Horietariko bat *El club del LP* entzuleen kluba da. LP bat hartu, eta klubeko kideek bertan saskonduko dute, Joserra Rodrigo musikazalearen (Bilbo, 1964) gidaritzapean. "Disko konkretu horiekiko maitasuna adierazteaz gainera, testuingurua ematen diet, emozioetatik entzuteko, lehenago egiten zen moduan", adierazi du Rodrigok. Berak pa-

sioz bizi du musika. *Pasión no es palabra cualquiera* liburua kaleratu zuen 2017an, Friasen (Espainia) hainbat jaialdi antolatatu du, eta rockaren emozio eskola tailerrak eman ditu hainbat urtean, baita UNED uniber-

"ROSALIAREN 'MOTOMAMI' DEFENDATZEARREN SEKULAKOAK ENTZUN NITUEN SAREETAN"

tsitatean ere. Gasteizko Ignacio Aldecoa kultur etxeko LParen klubeko gidaria ere bada. Urriaren 25ean izango da lehenengo saioa, eta bertan The Clash talde handiaren *London Calling* ezauna aletuko dute. Besteak beste, The Beatlesen *Abbey road*, Bob Dylanen *Highway 61* eta Lucinda Williamsen *Car wheels on a gravel road* izango dira hurrengoak.

Zelan sartu zen musika zure bizitzan? Nire anaien kaseteen bitartez. Umetako disko bi bereziki gogoan

ditut; Mikel Laboaren *Bat hiru* eta Bob Dylanen *Desire* oso garrantzitsuak izan ziren niretzat. Pentsa, ahots desafinatu bik eraman ninduten teknikoki hain onak ez baina transmititzen zuten ahotsak apreziaztera. Ordu tik, nire bizi osoa musikari lotuta egon da; *songwriters* direlakoak oso estimuan ditut; hau da, abestiak idazten dituztenak.

Nortzuek osatzen dute entzuleen kluba?

LParen lehenengo taldea Gasteizen sortu nuen, Ignacio Aldecoa kultur etxean. Rock tradizio handia duen hiria iruditzen zait Gasteiz, neurri batean Azkena Rock jaialdiagaitik, eta uste dut Durangon ere badagoela rock zaletasuna. Saiotetan, egun horretako diskoaren inguruko maitasuna adierazteaz gainera, testuingurua ematen zaio, saskonduko egiten dugu lan horretan. Emozionalki entzuteko aukera izaten da baita ere, eta parte hartzaileen iritzia entzutea ere asko gustatzen zait. UNEDeko tailerretako batean Internet bidez egiten ahalegindu ginen, baina ez zuen funtzionatu. Joan egin behar da eta bertan bizi. Ilusio handia dut Durangora joateko; lagun asko dut bertan, eta plaza rockeroa iruditzen zait, gainera. **Zeren arabera egin duzu LP aukeraketa?**

Gustu pertsonalak dira; izan ere, ez dut artisten diskorik onena aukeratu gura izan bere horretan. Batez ere, lanaren transzendentzia azpimarratu gura izan dut. The Beatlesen *Abbey Road*-en kasuan, adibidez, testuinguru polita du; izan ere, agur disko bat da, ederra, euren arteko hartu-eman txarra zen arren. Fleetwood Mac taldearen kasuan, ostera, diskoa aro gatazkatsu batean grabatu zuten, taldekideak dibortziazten zebiltzala eta kokaina ugari inguruan zutela, baina oso lan argitsua geratu zitzaizen eta milioika ale saldu zituzten.

Musika entzuteko modua asko aldatu da urteekin. Elkar partekatzea ere?

27 urteko seme musikazalea dut, eta guztiz aldatu da musika par-

"HIZKUNTZAK BERBA EGITEN BADIRA EZ DIRA HILTZEN; MUSIKA ERE EZ ENTZUTEN BADA"

tektzeko modua. Errazagoa da lehen baino, baina, aldi berean, gatzagoa. Diskoak garestiak izan dira beti, eta, beraz, erosterakoan, aprobetxatu egiten genuen; gogoan dut Bruce Springsteen *The River* erosi nuenean, Javi lagunari deitu eta makina bat bider entzun genuela. Diskoak entzun eta entzun, erre egiten genituen. Orain, ostera, dena eskura dago lainoan, eta beste modu batera entzuten da musika; azkarregi entzuten da. Musikagaz egiten zen trukea erromantikoagoa zen lehen; hala ere, ez dut inor epaitu gura, gero sorpresak ere eraman dituzulako.

Rocka hilda dagoela diote batzuek.

Hizkuntzak berba egiten badira hiltzen ez diren moduan, musikak ez dira hiltzen entzuten badira. Abestiak batasunerako elementu kulturala dira, gizartea ordezkatzeko dute. Adibidez, The Clash gaur egungoaren antza duen garai batean kaleratu zuen *Sandinista*, guda batez. Zerrendetan oso goian egon zen, protesta horrek testuinguruagaz hartu-eman zuelako. Badago hori gaur egun? Alde horretatik, elementu igorle modura, hil egin da. Ez du ordezkatzeko gizartea. Baina horregaitik ez diogu utzi behar kontzertuetara joateari. Adibidez, ekainean, Gasteizko Azkena Rock jaialdian, Patti Smith gurtziz konektatu zuen publikoagaz. Une horietan bizirik dago igorle modura, baina puntualak dira.

Jarraitzen diozu egungo musikari?

Bai. Rosaliaren *Motomami* defendatzearen sekulakoak esan zizkidaten sare sozialetan! Gogokoena ez dudan arren, artista ausarta dela iruditzen zait. Nahiko konektatuta egon izan naiz beti, eta adi jarraitu diet nobedadei; baina azken urte bietan, eta lotura izango du LParen klubagaz, lan klasikoagoetan sartuago nago. Arctic Monkeyseko Alex Turner artista oso interesgarria dela iruditzen zait, adibidez; The Kinkseko Ray Davies gogoratzen dit neurri batean. Oso ondo abesten du eta letra itzelak idazten ditu. Hala ere, gaur egungo beste disko batzuek entzunaldi bati baino gehiagori ez diotela utsiko esango nuke. Aurtengo kontzerturik onena Anohnirena izan dela esango nuke, adibidez; Donostia-ko Kurasaalean ikusi nuen eta harrigarria izan zen. Ezingo nintzateke bizi musikaririk barik; egun osoan nago kaskoak ipinita.

'Hartzea ematea DA!', 59. Durangoko Azokaren leloa

DURANGOKO AZOKA Durangoko Azokaren 59. edizioaren leloa eta irudia aurkeztu dituzte; Udatxo eta Balu artistek sortu dute Durangoko Azoka iragartzeko kartela, "eskurik esku" egindako prozesu batean; abenduaren 5tik 8ra bitartean egingo dute Azoka

Aritz Maldonado DURANGO

59. Durangoko Azokaren irudia eta leloa aurkeztu dituzte aste honetan. Udatxo eta Balu artistek egin dute irudia, "eskurik esku", eta *Hartzea ematea DA!* da leloa. "Azokara etortzea, ikustea, hartzea... kulturgintzari hauspoa ematea ere bada", nabarmendu zuen Beñat Gaztelurrutia Durangoko Azokako koordinatzaileak. Bestalde, Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentek abuztuan zendu zen Jon Irazabal gogoratu zuen; izan ere, 30 urtez azokaren zuzendari izan zen. "Ondare itzela utzi digu", esan zuen Mujikak.

Udatxo eta Balu artistek adierazi zuten inoiz egin duten lanik "bereziarena" izan dela Azokako irudia. Artista gipuzkoarrek collage erako lana egin dute. Lanak euskal kulturaren erreferentzia sorta batzen du; besteak beste, Durangoko Azokako kartel zaharrak, eta Hertzainak eta Negu Gorriak taldeen diskoen



Antolatzaileak, babesleak eta kartel egileak. TXELU ANGOITIA / GEREDIAGA ELKARTEA

azalak. "Kasualitatez, geruzak eta koloreak gehitzen joan ahala, kartelak bihotz forma zuela konturatu ginen, eta horregaz ere jolasten hasi ginen, odola gorputz guztira garraiatzen", argitu zuten artistek.

Bestalde, azaroaren 26rako eta 27rako DA! PRO topaketa

antolatu dute sortzaileen eta programatzaileen artean lan-kidetzak sustatzeko helburuagaz. 26an familia ikuskizunak plazaratuko dituzte, Bizenta Mogel bibliotekan; hurrengo egunean, musika proposamenak aurkeztuko dituzte Plateruena kultur aterpean.



Udal ordezkariak Markeliñeko kideekin.

Markeliñek etxean estreinatuko du 'Zepo zapo', Zornotzan

DANTZA Zornotza aretoaren denboraldi berria aurkeztu dute; Led Silhouettek 'Los perros' taularatuko du gaur

A.M. ZORNOTZA

Zornotza Aretoak dantza ikuskizunekin ekingo dio denboraldi berriari. Hain zuzen ere, gaur izango da lehenengo emanaldia. Led Silhouette konpainiak *Los perros* ikuskizuna egingo du. Martxel Rodriguez eta Jon Lopez dantzariak dira laneko protagonistak, eta, pasioz beteriko dantzen bitartez, hiru belaunaldiren arteko elkarriketa bat irudikatuko dute. "Errepikapenean eta katarsian hartuko du zentzurik garbiena: akitu arte dantzatu, abaildu arte zaunka egin, hil arte bizi", azaldu dute konpainiakoe.

Bigarren dantza emanaldia La Rutan taldearen *Rosas to dance* izango da, urriaren 25ean. Maria Andres eta Denis Martinez izango dira dantzariak kasu honetan.

Markeliñe, etxean

Denboraldiko ekitaldi nagusietariko bat Markeliñe konpainiaren *Zepo Zapo* antzezlanaren estreinaldia izango da; urtarriaren 3an izango da. Elkarren aurka borrokan dabilzan soldadu biren arteko hartu-emanakontatuko du istorioak; gatazka eta enpatia zelan nahasten diren azalduko du.



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Belarritik tira

Nakar taldeak BBK Live baztertu du, Txarlik Luhartz utzi zuen, Harry Styles-ek One Direction, Rachelek Ross (Rossek Rachel ere bai), Koldok Leo, eta Leirek La Oreja de Van Gogh. Tira, zer espero zenuten, inork ere ez aipatzea ANBOTOn aste honetan? Donostiako -edo 'Sanse'ko?- talde batek mundu osoa aztoratzea albiste da Euskal Herrian, eta ANBOTOn ere bai. Taldeari belarrietatik, bueno, belarritik tiraka ari dira hainbat zale. Imajinatu besterik ez dago zer gertatuko litzatekeen Durangaldean Aintzanek Luhartz utziko balu eta Txarli bueltatuko balitz. Aldea badago, ordea, Leireri gertatu zaionaren eta beste kasu guztien artean, sentimendu bat: horren parte sentitu gura eta ez sentitzen uztearena.

Ez nator musikaz berba egitera, eta bost axola zer gertatzen den talde horrekin. Ez dakit zein den Doren, Miren eta Faren arteko aldea. Gertatu denaz eta sentimendu horretaz berba egitera nator. Ez baitago

sentimendu baztertzailagorik bertan egon gura eta ez uztearena baino. Ez da ezin duzula, ez da zeruko hodei ertzetatik heltzen den destinu horrek beste bide bat hartzea eramaten zaituela; norbaitek, edo talde batek, lekutik urrundu zaituela baizik. Ez da izan "ez zaitugu gura gurekin gehiago" bat, "ez gaude txarto zugaz, baina lehenagaz hobeto joan dakigukeela uste dugu" esan diote. Pertsonak egoistak garela agerikoa izan da beti, baina hori esatea ankerkeria da. Nor edo nork behin apurtu zuen panpin bat hartu

"EZ DAGO SENTIMENDU BAZTERTZAILEAGORIK BERTAN EGON GURA ETA EZ UZTEARENA BAINO"

zenuen, konpontzen saiatu zara, itxura batean lortu duzu, denbora askoan beragaz batera jolastu zara... eta egun batean panpinak etxea utzi eta hautsi zue-narengana itzuli zen.

Honek guztiak tamalez ohikoa den egoera batera eramaten gaitu: Gizona(e)k emakumea instrumentatu du(te) irabazi propiorako. Erabaki batetik kanpo utzi dute 17 urtez, ustez, familiako kide bat izan dena. Idatziak ez zaitzala engaina. Are, bi abeslarien artean egon den konparazio etengabea ez dute inongo adierazpenik egin. Beste aldean jarri genezake, esaterako, Linkin Park taldea. Chester Benningtonen itzala luzea da, baina ez dute ordezkapen bat bilatu, dolua atzean utzita kolore desberdin bat txertatu gura izan dute, kasu honetan Emily Armstrong taldearen parte izateko lan egiten ari dira. 'Sanse'-koak, berriz, dirua egiten jarraitzeko, besterik ez. Doazela BBK-ra eta antzekoetara. Ni Nakar ikustera joango naiz.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 18

ABADIÑO Erakusketa

'Natura ilustratzen'.
Urkiolako parketxean, abenduaren
20ra bitartean.

BERRIZ Antzerkia

'Alizia herrialde miresgarrian'
(Iru Teatro).
Berrizko Kultur Etxean, 17:00etan.

DURANGO Erakusketa

Durango Urria XXIV. Pintura
Lehiaketako lanak.
Ezkurdi erakustaretoan, urriaren
20ra bitartean.

DURANGO Erakusketa

'Playground' (Xabi Gaztelu).
Arte eta Historia Museoa,
azaroaren 24ra bitartean.

ELORRIO Esperimentuak

Gazteboentzako esperimentuak.
Gazte Goza Gunean, 17:00etatik
20:30era.

ELORRIO Erakusketa

Patxi Granadoren, Josu
Urizarbarrenaren, Maria
Otxandianoren, Bego Colomoren,
Larraitz Loizateren eta Karlos Erizen
argazkiak (Elorrioko Argazki Taldea).
Iturri kultur etxean, urriaren 25era
bitartean.

MAÑARIA Bisitaldi Gidatua

'Gure animalien bide bitxietako
batzuk'. Europako Ondare Jardunaldia.
Hontza Museoa, 11:00etatik
12:00etara (euskaraz) eta
12:00etatik 13:00etara
(gaztelaniaz).

ZORNOTZA Dantza

'Los Perros' (Led Silhouette).
Zornotza Aretoa, 20:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa

'Bosteko 2024: Karratu beltz leuna'.
Zelaietako erakusketa gelan,
azaroaren 3ra bitartean.

ZAPATUA 19

ELORRIO Irteera

Perretxiko bila joateko irteera
(Iturizoro elkarteak).

Goiko autobus geltokian, 08:00etan.
Abxondoko frontoian, 08:15ean.

IURRETA Irteera

Bizikleta irteera Landara (Iurreta
Txirrindulari Elkarteak).
Iurreta, 09:00etan.

MALLABIA Ibilbide Gidatua

'Andabidea zordanbidea'. Europako
Ondare Jardunaldiak.
Udaletxean, 10:00etan.

OTXANDIO Ibilbide Gidatua

'Bidea, muga eta uria'. Europako
Ondare Jardunaldiak.
Plazan, 17:00etan.

OTXANDIO Irteera

Irteera perretxiko bila.
Plazan, 09:30etan.

ZORNOTZA Ibilbide Gidatua

'Amorebieta-Etxanotik Goikolexeara:
bidea-galtzada'. Ondare Jardunaldiak.
Urritxeko futbol zelaian, 09:30etan.

DOMEKA 20

ELORRIO Antzerkia

'Alizia herrialde miresgarrian' (Iru).
Arriola antzokian, 17:00etan.

ELORRIO Erakusketa

XXXIII. Perretxiko Erakusketa
(Iturizoro elkarteak).
Frontoian, 11:30etan hasita.

IURRETA Irteera

Bizikleta irteera Mungiara (Iurreta
Txirrindulari Elkarteak).
Iurreta, 09:00etan.

OTXANDIO Erakusketa

XXXIV. Perretxiko Erakusketa
Pasealekun, 10:00etan hasita.

MAÑARIA Ibilbide Gidatua

'Harrobiak, bideak eta bentak'.
Europako Ondare Jardunaldiak.
Plazan, 10:30etan.

MARTITZENA 22

ELORRIO Berbaldia

'Haurren erbesteko bideak'
(Hizlaria: Mikel Diego Barajas).
Europako Ondare Jardunaldiak.
Iturri kultur etxean, 18:30etan.

EGUAZTENA 23

ABADIÑO Ipuinak

Maider Alcelay ipuin kontalaria.
Udal Mediatekan, 17:00etan.

ATXONDO Berbaldia

'Kokomarro eta eske errondak neguko
jaietan' (Hizlaria: Oier Araolaza).
Liburutegian, 18:30etan.

EGUENA 24

OTXANDIO Aurkezpena

'3052' liburua (Itziar Larrinaga).
Otxandioko Txokoan, 19:30etan.

BARIKUA 25

BERRIZ Musika

Galder Izagirre, 'Esc' lanagaz.
Berrizko Kultur Etxean, 21:00etan.

DURANGO Erakusketa

Mikel Hildagoren lana
(Durangaldeko Artisten Elkarteak).
Ezkurdi erakustaretoan, azaroaren
3ra bitartean.

ELORRIO Antzerkia

'Hoy no estrenamos' (L'Om Imprebis).
Arriola Antzokian, 20:00etan.

IURRETA Ipuinak


Oihana Etxegibel ipuin kontalaria
Bibliotekan, 17:30etan (3-5 urte)
eta 18:00etan (sei urtetik gora).

MALLABIA Urriko Jaiak

Musikabia, 20:15ean.
Aiama eta Beranduegi, 21:30ean.
Mallabian.

ZORNOTZA Dantza

'Rosas to Dance' (LaRutan).
Zornotza Aretoa, 20:00etan.



TXALO PRODUKZIOAK

DURANGO Antzerkia

Jon Plazaola aktoreak 'Tu Tum Platz' umore ikuskizuna egingo du Durangon,
datorren astean.
Urriaren 24an, eguena, San Agustin kulturgunean, 19:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Soy Nevenka
domeka 20: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMAN

'La habitación de al lado'
barikua 18: 18:00, 20:30.
zapata 19: 16:45, 19:15, 21:30.
domeka 20: 17:00, 19:30.
astelehena 21: 18:00, 20:15.
martitzena 22: 18:00, 20:15.
eguztzena 23: 19:00.

La hora del silencio

barikua 18: 18:00, 20:30.
zapata 19: 19:15, 21:30.
domeka 20: 19:30.
astelehena 21: 18:00, 20:15
martitzena 22: 18:00, 20:15

Smile 2

barikua 18: 18:00, 20:30.
zapata 19: 19:00, 21:30.
domeka 20: 17:00, 19:30.
astelehena 21: 17:45, 20:15.
martitzena 22: 17:45, 20:15.
eguztzena 23: 19:00

Robot salvaje

zapata 19: 16:45.
domeka 20: 17:00.

Las bodas de Figaro

eguztzena 23: 18:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIAN

El 47

zapata 19: 20:00.
domeka 20: 20:00.
astelehena 21: 20:00.

Urraca, cazador de rojos

zapata 19: 18:00

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOAN

Joker: Folie à Deux


zapata 19: 20:00.
domeka 20: 20:00.
astelehena 21: 20:15.

Central Parkeko Heroiak

zapata 19: 17:00.
domeka 20: 17:00.

El Monje y el Rifle

martitzena 22: 20:15.



DURANGOKO SAN FAUSTOAK

URRIAK 18

18:00 Trotamundos zirkua taldea Ezkurdin, 'Finito-Infinito' ikuskizunagaz. *Euria bada, Kurutziaga ikastolan.*

19:00 Tortilla txapelketa, txosnagunean. Sari banaketa, 20:30ean.

19:00 Pilota Fest, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan: Mikel Goñi-Bernaola / Oinatz Bengoetxea-Eguren.

19:30 Fanfarreen arteko norgehiagoka. 'Deiadar' fanfarrea Otamotzena auzotik irtengo da. Tximeletak txarangaren hasiera Madalena auzotik.

20:00 Kontzertua: Astarloa Otxotea, Bogoroditsie eta Izar Gaztea. Durangoko abesbatzak, Santa Ana elizan.

20:00 Umore ikuskizuna: 'Monólogos a dos bandas'. Andoni Agirregomezkorta eta Nerea Garmendia. Andra Mariko elizpean.

21:30 Kontzertua: Nahiez taldea. Ezkurdin.

21:30 Fanfarreen norgehiagoka, udaletxeko plazan.

22:00 Kontzertuak: Txopet, Pinpilinussies eta Belako. Txosnagunean.

22:30 Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Jon Maia, Jone Uria, Aitor Bizkarra, Xabat Illarregi eta Oihana Iguaran. Gai-jartzailea: Unai Iturriaga. San Agustin Kulturagunean. Gonbidapenak Arte eta Historia Museoa, urriaren 10etik aurrera.

23:00 Kontzertua: Esne Beltza.

URRIAK 19

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu bakoentzat, Ezkurdin. Izen ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. *(Antolatzailea: Larrasoloeta xake taldea).*

11:00-14:00 Umeentzako parkea, Landako Eskolan. *Euria bada, Landako eskolako frontoian.*

11:00 - 14:00 umeentzako tailerrak Asebier elkartearen eskutik. Landako Eskolan *Euria bada, Landako Eskolako frontoian.*

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Kalejira trikitilarietan, Txiri-txiri taldearen eskutik.

12:00 XV. patata tortilla txapelketa, Landako Gunean. Izen ematea eta informazioa: Intxaurren, urriaren 1etik aurrera.

13:00 Kontzertua: Luhartz taldea, Andra Mariko elizpean.

14:00 Elkartasun bazkaria. Txosnagunean. *(Antolatzailea: Txosna Batzordea)*

16:00 - 19:00 Umeentzako parkea, Landako Eskolan. *(Euria bada, Landako Eskolako frontoian)*

17:00 Animazioa trikitilarietan adinekoen egoitza hasita.

17:00 Karaoke ibiltaria herriko kaleetatik.

18:00 Kalejira Sugarri fanfarreagaz.

18:00 Kalejira Elektrotxaragaz. *(Antolatzailea: Txosna Batzordea)*

18:30 Antzerkia: Harreman ikuskizuna, Zirkozaurre elkartearen eskutik. Ibaizabal parkean. *Euria bada, Kurutziaga ikastolan.*

18:30 Mozorroen desfilea Madalenatik Andra Mariko elizperaino. Amaieran, sari zozketa. *Izen ematea: urriaren 1etik 18ra Intxaurren.*

20:00 Erromeria: Luhartz taldea, Andra Mariko elizpean.

22:00 Kontzertuak: Rolando Bruno eta Goxua'n Salsa. Txosnagunean. *(Antolatzailea: Txosna Batzordea)*

23:00 Atlantida Show Orkestra, Ezkurdin.

00:00 - 03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa. Txosnagunean. *(Antolatzailea: Mankomunitatea)*

URRIAK 20

7:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00 Mañaria ibaiaren garbiketa. Hasiera: Pinondo Plazan.

10:00 Dantza maratona. Bachata, kizomba, saltsa eta afrodance tailerrak. Ondoren, dantza bermuta animazioagaz girotuta. Murueta Torre auzoan. *Euria bada, Plateruenan. (Antolatzailea: Murueta Torre auzo elkarte)*

11:00 San Fausto XII. Padel txapelketako finalak. Landako kiroldegian. *(Antolatzailea: Padelzaleak).*

11:00-14:00 Txikientzako parkea, Landako eskolan. *Euria bada, Landako eskolako frontoian.*

11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. *Euria bada, Landako Gunean.*

12:00 Marrazki lehiaketa. San Fausto auzoan. *(Antolatzailea: Centro Social San Fausto)*

12:00 Emanaldia: Tabira Musika Banda. J.M. Barandiaran egoitzan.

12:00 Poneyak eta zaldiak. Tabira parkean. *Euria bada, ez da egingo.*

12:00 Kalejira, Musika Eskolako txistulariekin.

12:00-14:00 Arku Titorako Gunea, Ibaizabal parkean. *Euria bada, Landako Gunean. (Antolatzailea: Durangoko Arkulariak).*

12:30 Herri Kirolak. Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Karmele Gisasola, Bihurri, Karlos Aretxabaleta, Goizeder Beltza, Ainhoa Larrinaga eta Aratz eta Enara Beltza ume aizkolariak. Ezkurdin. *Euria bada, Landako Gunean.*

12:30 Kalejira Alde Zaharretik: Astarloa Otxotea eta Iruñeko Ahots Taldea.

13:00 Durango Uria XXIV. Margo Lehiaketako sari banaketa. Ezkurdiko erakusketa aretoan. *(Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarte)*

13:15 Kontzertua: Tabira Musika Banda, Andra Marian.

16:00 Arku tiro txapelketa. Landako Gunean. *(Antolatzailea: Durangoko Arkulariak)*

17:00 Dantza modernoa, garaiakidea eta urbanoa: L'Atelier Dantza Eskola. Ezkurdin.

17:00 Apar jaia Muruetatorren.

18:00 Musika saioa: De Balada taldea, Andra Marian.

18:30 Gora eta Gora adinekoen antzerki taldea 'Las que cuentan' ikuskizunagaz.

18:30 Kalejira Irulitxa fanfarrearekin Alde Zaharretik.

19:30 Kalejira Patxikotxuri eta jaiei agur esateko.

20:00 Su artifizialak.



Pinpilinussies. ALOUD MUSIC

"MMAan jiu-jitsu barik ez zoaz inora; funtsezkoa da"

ARTE MARTZIALAK Jiu-jitsu brasildarra beste arte martzial batzuk baino berriagoa da eskualdean, baina izena hartzen dabil apurka. BSG Matiena taldeko Mikel Carracedo Lizundiak (Abadiño, 1993) klaseak ematen dizkie umeei eta nagusiei

Joseba Derteano ABADIÑO

Mikel Carracedori betidanik eman dio arreta jiu-jitsu brasildarrak, kickboxingean zentratuta zebilen sasoian ere bai. Aukera sortu zitzaionean, klaseak hartu eta espezialista bihurtu zen. Urteak daramatza lehiatzen, eta orain klaseak ematen hasi da, umeei zein nagusiei.

Zer eskaintzen duzue jiu-jitsu brasildar klaseetan?

Nagusientzat astegun guztietako arratsaldeetan ditugu klaseak, eguenetan izan ezik. Umeei ere ematen dizkiegu klaseak; Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxean astelehenetan eta barikuetan, eta Traña-Matienan martitzenetan.

Zergaitik aukeratu behar genuke jiu-jitsua eta ez beste arte martzial bat?

Beste arte martzialekin alderatuta, jiu-jitsu brasildarrak nagusitasun argi eta frogatu bat du: Arte Martzial Mistoaren [MMA] hasierako etapan, jiu-jitsua egi-



Mikel Carracedo BSG Matienaren lokalean, Traña Matienan.

ten zutenak ziren borrokalaririk onenak. Orduan agerian geratu zen jiu-jitsua ez zekien batek oso txarto pasatzen zuela jiu-jitsua zekien baten aurka. Honegaz ez

dut esan gura beste arte martzialak txarragoak direnik, baina datua esanguratsua da.

Gaur egun ere MMAko parte garrantzitsu izaten jarraitzen du?

Bai. Gaur egungo MMA, jiu-jitsurik barik ez zoaz inora; funtsezkoa da. Han dabilzan kirolari guztiak oso trebeak dira jiu-jitsuan. Gehienek gerriko beltza dute, edo gutxienez marroia.

Eta umeekin zelan antolatzen dituzue klaseak?

Umeei kasuan, ondo pasatzea da garrantzitsua. Jolasen bitartez, psikomotrizitatea, talde kohesioa eta balioak lantzen ditugu: besteekiko errespetua, elkartasuna...

Zein da jiu-jitsu brasildarraren jatorria?

XXI. mende hasierakoa da. Japoniatik Brasilerara joandako Mitsuyo Maedak judo erakusten zion Brasil bizi zen aristokrata familia bati. Familia horretako kide batzuk argalak eta txikiak ziren. Beraz, judo familia horren beharrezanera moldatu zuen, efizientetara izan zedin. Orduan jaio zen jiu-jitsu brasildarra.

Eta Durangaldean nor da aitzindaria?

Nire ustez, Pedro Barbosa brasildarra da aitzindaria. Bilbotik eskualdera etortzen zen lanera, eta orain hamarkada bat inguru jiu-jitsu klaseak ematen hasi zen Abadiñon. Ni kickboxingean nenbilen orduan, baina jiu-jitsuagazko interesa neukan, MMA askotan aipatzen zutelako. Barbosaren berri izan nuen, beragaz hasi nintzen. Gero Barbosa Londresera joan zen bizitzera, eta Durangoko lagun batek eta biok talde bat sortu

genuen. Gerora, nik neure bidea hartu nuen. Beraz, jiu-jitsua kirol berria da eskualdean. Oraindino kirola ezagutarazteko fasean gaude, baina dagoeneko fruituak ematen dabilela ikusten dugu. Gugaz urtebete daramaten ikasleengan sekulako garapena ikusten dut eta horrek poz handia ematen dit.

Baina dagoeneko eman ditu kirolari azpimarragarriak, Eneko Diez abadiñarra esaterako. 2023an bosgarren geratu zen munduko txapelketan. Madrilen bizi da gaur egun. Mantentzen duzue hartu-eman?

Bai. Gure parte da eta izango da. Bere garaipenak geure sentitzen ditugu eta gure atea zabaltzen aurkituko du beti. Eneko nigaz hasi zen entrenatzen. Gerriko urdina atera zuenean, hemengoa txiki geratu zitzaion eta Madrilerara joan zen bere garapenagaz jarraitzen.

Zuk zeuk lehiatzen jarraitzen duzu?

Bai. Domekan Zamudioko txapelketa batean parte hartu nuen. Klaseak ematen hasita, ezin naiz neure prestaketa propioan hainbeste zentratu, baina pozik nabil, betiere inguruko txapelketetan.

"UMEEKIN BALIOAK, TALDE KOHESIOA ETA PSIKOMOTRIZITATEA LANTZEN DITUGU, BESTEAK BESTE"

Europako txapelkunordea kexaz bueltatu da munduko txapelketatik

ARTE MARTZIALAK Eneko Diez grappling borrokalariak aurkariaren jokabidea eta epaileen lana kritikatu ditu

J.D. DURANGO

Eneko Diezek (Durango, 1999) denboraldi bikaina osatu du aurtan. Grappling modalitatean —jiu-jitsuaren antzerako diziplina, bere araudi propioagaz— Espainiako txapelketa irabazi du eta Europako txapelketan txapelkunorde geratu da 84 kilora arteko pisuan. Emaitza bikain horiei eskerrak, Espainiako selekzioak munduko txapelketan aritzeko hautatu zuen, bere ibilbidean lehenengoz.

Kazakhstan Astana hiriburuan lehiatu zen txapelketa, joan

zen asteburuan. Denboraldi go-goangarri baten kolofoa izatea gura zuen, baina ez zen horrela izan. Lehenengo kanporaketan Samy Mezache frantziarrak kanporatu zuen: 2-1. Zapore garrantzitsu utzi dion borrokaldia da eta ez dago konforme puntuazioagaz. "Nire ustez, neuk irabazi nuen", dio. Borrokaldiko zatirik handienean aurkaria norgehiagokan "ihes egiten" ibili zela dio eta ezin du ulertu epaileak zergaitik baimendu zuen jokabide hori, zigortu beharrean. Zortea ere ez du aldeko izan. Aurkaria lu-

rrean zegoela eta posizioa irabazita zuela amaitu zen borrokaldia. Pare bat segundo gehiago izan balitu, markagailua irauli eta borrokaldia irabaziko zuen.

AURKARIA "IHESAN" ARITU ZELA DIO, ETA EZIN DU ULERTU EPAILEAK ZELAN EZ ZUEN ZIGORTU

Edozelan ere, bere lehenengo munduko txapelketa "esperientzia aberasgarria" izan zela dio eta borrokalari moduan "hazten" lagunduko diola. Eneko Diez Madrilen bizi da gaur egun eta hango Checkmat taldeagaz entrenatzen da.



Eneko Diez Europako txapelketan irabazitako zilarrezko dominagaz. ENEKO DIEZ

Zornotzan kroslaririk onenak lehiatuko dira

KROSA Zornotzako Nazioarteko Krosak 70. aldia egingo du. Laugarren urtez jarraian, urrezko zigiluari eusten dio, dagoen izendapenik gorenenari. Horregaitik, goi mailako atletek parte hartuko dute Jauregibarriako landetan, eta lehia estua espero da

Joseba Derteano ZORNOTZA

Zornotzako Nazioarteko Krosaren aurtengo aldiak pizgarri asko eskaintzen ditu krosarientzat. Horregaitik, aurreko aldietan baino parte hartze handiagoa espero dute antolatzaileek domekan goizean, Jauregibarriako landan.

Alde batetik, laugarren urtez jarraian World Athletics Cross Country zirkuituaren barruan dago eta urrezko zigiluari eusten dio. Horrek esplikatzeko du maila absolutuan lehiatuko diren maila handia.

Bestetik, Euskadiko klubentzat hutsik egin ezinezko hitzordua da. Izan ere, Zornotzan erabakiko dira Espainiako txapelketa sailkatuko diren klub euskaldunak.

Emakumeen lasterketa nagusia 12:15ean hasiko da, eta gizonena 13:00etan. Horren aurretik, beste zortzi lasterketa egongo dira mailarik maila, 09:40tik aurrera. Herri lasterketa eta



Antolatzaileak eta babesleak krosaren aurkezpenen.

aniztasun funtzionala dutenen lasterketa ere egingo dituzte.

Falta direnak, gogoan

Azkenik, aurten hil diren hiru atleta gogoratu zituzten aurkezpenen, hirurak Zornotzan ari-

tutakoak: Mariano Harok zazpi bider irabazi zuen Zornotzako krosa, 1964 eta 1977 bitartean; Carmen Valero hirugarren izan zen 1987ko krosean, eta Rebecca Cheptegei bigarren sailkatu zen, 2014ko aldian.



Basque pilota zestartu guran, Barandika begira duela. ERAMAN

Astelehenean Jai Alai Leagueko finala jokatuko dute Durangon

ZESTA-PUNTA Barandika-Lopez eta Johan-Gorka bikoteen artean dago Ezkurdi Jai Alain jokatuko den txapela

J.D. DURANGO

Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak Jai Alai Leagueko final handia hartuko du astelehenean 19:00etan hasiko den jaialdian.

Adituek Erkiaga-Basque bikotea finalean ikusten zuten, neurri handi batean Erkiagak aurten erakutsi duen mailagaitik: Ispasterreko puntistak egutegiko 13 probetatik 10 irabazi ditu. Baina asteleheneko finalerdian faboritoei galdu egin zuten, goi mailan aritu ziren Barandika eta Lopezen kontra. Beste finalerdian Johan eta Gorka Soro-

zabal anaiak sailkatu ziren, berdinketa hausteko setean Laduche-Del Rio bikotea menderatuta.

Lopez en errebantxa

Asteleheneko finalean, Imanol Lopezek iazko finaleko zapora garratza kentzeko aukera izango du. Iaz, Iñaki Goikoetxea herrikideagaz osatu zuen bikotea. Goikoetxea erretiratu aurretik, zumaia biek elkarregaz jokatzen zuten azken aldia zen eta txapela gertu izan zuten, baina azkenean etsi egin behar izan zuten Laduche-Basque bikotearen aurka.



JOKALDIA

IÑAKI IZA ZARAZUA PILOTARI OHIA

Eskerrik asko, Danel!

Ia egunero bezala, asteazkenean ere goizean goiz ohetik jaiki, telefonoa hartu eta Whatsappeko talde baten jaso-tako mezua zabaldu nuen. Testu batez lagundutako bideo bat zen, Danel Elezkanorena. Horrela zioen testuak: "Gabon mutilek, kanpotik edo sareetatik enterau aurretik nik gurutzuet esan. Eskerrik asko bide honen parte iziteagaitik". Bukatzeko bi emotikono: besarkada eta bihotz gorria. Lehenengo esaldia irakurrita, berri onen bat izan zitekeela pentsatu nuen hasieran; baina bigarrena leitu eta une batez pentsatu ondoren, agur-mezua izan zitekeela sumatu nuen. Eta hala zen. Bideoak berretsi zuten nire susmoa. Ordura artean, Danelen nondik norakoen jakitun nintzen. Banekien azken hilabeteak medikuz mediku pasatu dituela lesioei konponbidea aurkitzeko helburu itsuarekin. Pilota utzi behar izateko arrisku handia zuela jakinda ere, ezustean hartu ninduen berriak. Bideoa "esku pilota uztera behartuta nagoela jakinarazi nahi dut" mezua ziztatu zidan barrena, hain zuzen.

"WHATSAPPEKO TALDE BATEKO MEZUA ZABALDU NUEN. TESTU BATEZ LAGUNDUTAKO BIDEOA ZEN, ELEZKANORENA"

"PILOTA UTZI BEHAR IZATEKO ARRISKU HANDIA ZUELA JAKINDA ERE, EZUSTEAN HARTU NINDUEN BERRIAK"

Ez naiz inondik inora ere hasiko lesio baten erruz pilota utzi behar izan zuen pilotari baten azaletik idazten. Hark inork baino hobeto daki-eta egoera honi ere nola egin behar dion aurre. Gainera, gertaerak baino min handiagoa eman zidan modu horretan erretiroa Danelek berak hartu behar izanak; hain zuzen, ezagutu ditudan guztien artean, frontoian ordu gehien egin dituen pilotariak, zalantzarik gabe. Edo goizean entrenamendu gogorra eginda, arratsaldean gazteen entsegua ikustera joan eta, jokatzekeo grinari eutsi ezinik, bakeroak eta alkandora jantzita izerdi-patsetan etxeratzen zenak.

2016ko irailean idatzi nuen astekari honetarako lehen artikuluan Danel izan zen protagonista. Besteak beste, Asegarcetik Aspera pasatzea erabaki errentagarria izan zitekeela edota bere aita zenari harro sentitzekeo motiboak emango zizkiola uste nuela nioen. Bada, aurreikuspena bete-betean asmatu dudala esango nuke. Horra, bestela, kirol ibilbide inbidagarria jarrera ereduagarri zintzia.

GUARDIAKO BOTIKAK

URRIAK 18

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URRIAK 19

09:00-09:00

Irigoiñ, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URRIAK 20

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URRIAK 21

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URRIAK 22

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

URRIAK 23

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URRIAK 24

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia
gizatugozotegia



DURANGO - ABADIÑO

Ainhoa eta Ander

Irailaren 21a. Zorionak, bikote, ezkontza bezain polita izan daittela hemendik aurrerako bidea. Gora ezkonberriak!



DURANGO

Maidier

Urriaren 23an, 6 urte. Zorionak, Maidier! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Asko maite zaitugu!



DURANGO

Pili Madariaga

Urriaren 12an, 94 urte. Aurten be jai giroan ospatu dogu amama Piliren egune! Zorionak, amama, etxekuen partez, eta muxu asko!

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitzez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.


EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA




DURANGALDEA

Zapatua, 19



Domeka, 20



eta gabonetako POTOLUE HEMEN jausten bada? **BERRIRO**

LOTERIA HIRU 94 620 04 57
Loteria Hiru - Administrazioa Zb. 1
San Prudenzio 2 - MATIENA (Abadiño)

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

INMOBILIARIAK



IURRETA ERAIKUNTZA BERRIA. 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua. **256.000 €-tik aurrera**

AUKERA

Durango: 115m². 3 logela eta 2 komun. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan. 2 terraza. **C.E.E=E 325.000 €**

Durango: 2 logela eta 2 komun. Guztiz berriztatua. Terraza. **C.E.E=D 245.000 €**

Abadiño: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoaldea. Mendi ikuspegiak. **C.E.E=E 198.000 €**

Iurreta: 70 m². 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Hegoaldea. **C.E.E=F 169.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Ibaizabal: Logela bakarreko apartamentua, komuna, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 210.000€**

Durango: 120 m². 4 logela, 2 komun eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garaje zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 260.000 € / negoziagarria**

F.J. de Zumarraga: 3 logela, komuna eta sukalde-egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 195.000 €**

Matieta: 2 logela eta komuna. Guztiz barritzatua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 127.000 €**

Iurreta: 114 m². 4 logela eta komuna. 2 terraza. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 246.000 €**

Durango: Erdigunean dagoen apartamentua. 2 logela eta komuna. Guztiz barritzatua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 150.000 €**

Berriz: Duplexa. 3 logela, 2 komun. Garaje itxia 2 kotxerentzako. Ikuspegiak. **C.E.E=E 330.000 €**

Astxiki: 147 m². 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Balkoia. **C.E.E=E 380.000 €**

Komentu kalea: 70 m². 2 egongela handiak, komuna, sukaldea despentsarekin eta egongela terrazarekin. **C.E.E=E F187.000 €**

Andra Mari: 85 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=F 255.000 €**

Berriz: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=F 160.000 €**

GARAJEAK SALGAI

ERDIALDEAN: Garajea. **13.000 €**

J.M.ALTONA: Garajea. **15.000 €**

ALLUITZ: Garaje itxia. **23.000 €**

**ETXEBIZITZAK SALGAI****DURANGO**

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDU

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIKUAN**ABADINO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKUAN

Aide Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matieta: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



DURANGO Goienkale: 66,70 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du. Mendebaldea. Erdigunean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. Ganbara.



DURANGO Askatasun Etorbidea: (1.991. urtean eraikia): 88 m². Halla, egongela, sukaldea, despentsa, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-iparraldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta eta zerbitzuguneak gertu. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garajea. Bigarren garajea erosteko aukerarekin + **20.000 €**.



DURANGO Frantzisko Ibarra (2.000. urtean eraikia): 93,77 m². Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriguneko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garaje itxia.



MATIENA Laubideta: 66,83 m² útiles. Sukalde amerikarra, egongela, 3 logela eta komuna dutzarekin. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Argitsua. Egoera onean. Zonale lasaia, herriko sarrera/irteeratik gertu. Etxebizitza gertu dagoen garajea erosteko aukera dago. + **16.000 €**.



IURRETA Dantzari: 56,01 m². Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Instalazio elektrikoa eta iturgintza berriztatua 2007. urtean. ITE-a orainsu pasatakoa. Ez ditu berrikuntzarik behar.

**BERRIAK DURANGO**

Bartolome Ertzilla kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **170.000 € / E.E.Z=E**

BERRIZ

Eitua: Berreraikitze baserria lursailarekin. **350.000 €**

DURANGO

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Frantzisko Ibarra kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Garaje itxia eta igogailua. **310.000 € / E.E.Z=E**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

Montorreta kalea: 3 solairuko pabilioia. 1309 m² inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z= Salbuetsita.**

Santikurutz Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

ABADINO

Konpontzeko eraikina. Behe solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitze baserria lurzorugaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

GARAJE

Momoiio auzoa: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

OIXANDIO

Elixoste: 3 logela, sujalea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 145.000 € / ORAIN 130.000 € / E.E.Z=F**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.



LAU-HORTZA

BIXENTE AIZPURUA
EGUREN

Ikasturte berria martxan

Beste ikasturte bat jarri da martxan eta ikasleek beste urte bat dute aurrean beraien formakuntzan aurrera egiteko.

Hezkuntzarekin lotuta oso interesgarria den hausnarketa irakurri nion Jose Mujicari, Uruguaiako presidentea 2010etik 2015era. Honela esaten zuen: "Etxeak hezi egiten du, ikaste-txeak irakatsi". Etxean ikasten da: agurtzen, eskerrak ematen, argi eta garbi ibiltzen, zintzoa izaten, zuzen jokatzeko, errespetuz hitz egiten, ingurua eta ingurukoak errespetatzen, eskuzabala izaten, ez lapurtzen, gezurrik ez esaten, eta antzerkako beste gauza asko. Eskolan ikasten da: matematikak, hizkuntzak, zientziak, etab. Eta gurasoek etxean landu eta bultzatutako baloreak indartzen. Baina 35 urte irakasle lez ibili ondoren ikusi dut zoritxarrez hori ez dela gertatzen, eta askotan irakaslearen lana ez dela baloratzen. Umea irakaslearen gaineratik jartzen da eta bere lana egiteaz gain familiarin egin beharrekoak egitea eskatzen zaio.

Gure umeak zuzen eta egoki formatu nahi baditugu familiarik eta eskolak batera egin behar dute lana, bakoitzak bere funtzioa betetzeko, eta hori lortzen badugu hezkuntzaren eta pertsonaren kalitatea nabarmen hobea izango da.

Ea ikasturte berri honetan eta hurrengoetan hori betetzen dugun. Askok ikasi eta ondo pasa eskolan eta etxean!

AKUILUA



"Loreak oso presente egon dira beti nire bizitzan"

URITZ AREITIO IRIONDO NILORA LORAK

Uritz Areitiok (Mañaria, 1988) loreekin apaindutako osagarriak sortzen ditu, Nilora Lorak izenpean. Urte hasieran ekindako bideak nora eramango duen ez dakiela dio

Aitziber Basauri MAÑARIA

Uritz Areitiok beti izan du loreekin zaletasuna, eta berezko zaletasun horretatik sortu da Nilora Lorak. Urkiolako parke-txean ingurumen hezitzaile lanagaz uztartzen du joan zen neguan hasitako proiektua (@nilora_lorak).

Zer ekartzen dizute gogora loreak? Loreen mundua, lorezaintza orokorrean, asko gustatu izan zait beti. Berezkoa dudana zeozer dela esango nuke. Loreak oso presente egon dira beti nire bizitzan. Lore denda batean lan

egin nuen, eta lore saltzaile titulua atera nuen 2009an. Lore denda zabaltzekotan ere izan nintzen, baina azkenean atzera egin nuen. Lorategiak bisitatzean ere plazer handia sentitzen dut. Baita azoketan, lore haztegi-tan eta halakoetan ere. Gure etxea

"EZ DAKIT NORAINO HELDUKO NAIZEN BIDE HONETAN. HALA ERE, ARGI DUT ZALETASUNA DELA"

lorez beterik egon da beti. Amak lore mordoia izaten zuen baserrian. Joaten zen lekura joanda, beti ekartzen zituen loreak. Ez dakit horregaitik izango den...

Zein helburugaz jaiotzen zara?

Ez daukat batere helbururik. Etxean beti eskatu izan didate zeozer norbaiti oparitzeko. Esaterako, amak eskatuta, lore-dun koroa bat egin nuen izekorri oparitzeko. Eta gero, lehengusina batek zentro bat eskatu zidan bere amaginarrebari oparitzeko. Ondoren, lagun batek

beste enkargu bat egin zidan bere etxerako. Halaxe hasi nintzen lore-dun koroak sortzen. Horietakoak egin ditut gehien. Jolasean hasi nintzen, enkargu batzuk hartuz, eta lagun batzuk animatuta Instagram kontua zabaldu nuen.

Bertan erakusten dituzu zure lanak. Bai, argazkiak ipintzen hasi nintzen, eta eskari batzuk jaso nituen. Ezagunenak, batez ere. Ekainean, ezkonberri batzuentzat jatetxea apaindu nuen, lagun batek eskatuta. Orain, azoka batzuetara joan naiz, probatzen. Ez dakit noraino helduko naizen bide honetan, probatzen nabil. Hala ere, argi dut zaletasuna dela, eta hori izaten jarraituko duela.

Izena zure izanagaz bat dator?

Aitita-amamen inisialak batuta sorturiko izena da, tartean 'lora' berba batzen duen arren. Nire aurrekoengaitik naiz ni orain naizena. Euren egindako omenaldia da Nilora.

Zuk batzen dituzu loreak?

Bai. Era naturalean sikaturiko loreak Araba aldean batzen ditut, batez ere. Baina lore freskoak ere hartzen ditut, etxean sikatze-ko. Koloredunak erosi egiten ditut; deshidratazio prozesua pasatu duten lore freskoak dira. Izugarri gustatuko litzaidake loreen ortu bat izatea, baina lan handia eta denbora asko eskatzen du. Esperimentu txiki bat egin dut aurten, baina ez dut ezer batu. Ea datorren urtean.

Lore bat?

Ezin bakararra aukeratu. Bakoitzak bere momentua du eta pilo batek asko aberasten dute.

Lore sorta sikua ala freskoa?

Momentuaren arabera. Norentzat den, zertarako, helburua...

DURANGO

SAN ROKE BARRIA

Bilatzen zenuen aukera.

Etxebizitza modernoak kokapen bikainean.

2 logela:

249.000€ -tik aurrera + BEZa

Garaje itxia eta trastelekua barne.

3 logela:

314.000€ -tik aurrera + BEZa

Garaje itxia eta trastelekua barne.

Zure hitzarmena eskatu:

sukia.com

edo deitu iezaiguzu:

946 462 041



Zure etxean zaude Estás en tu casa